

# ESKATZEA LIBREA DA, MOTEA BE BAI

*Gabonillean gagoz. Poztasun egunak. Olentzero be laster etorriko da. Gure Iñakitxu urte guztian ona izan dan ezkerro, ziur dago Olentzeriak gauza asko ekarriko dautsozala. Baiña aztu egiten ba'da? Onera, Olentzero jaunari gutun bat idaztea izango da, aztu ez daiten. Eta orretan aurkitzen dau bere aitak lanetik etxera datorrenean:*

—Zertan zabiltz Iñakitxu?

—Ba... Olentzeroari idazten!

—Baiña ona izan zara, gero?

—Bai! Begira (eta atzamarrakaz kontatzen asten da): Neurri onak atara dodaz, ama ez zu ez zai-tuet asarratu eragin, amak agindu daustazan lan guztiak egin dodaz, zuk tabakoaren billa agindu nauzunean...

—Naiko, naiko, bai ona izan zara —dinotso aitak— eta zer eskatuko dautsezu?

—Ba... kamioi bat, egazkin bat, kometa bat, lau tebeo, txiringa bat, iru ingurrazti margoztuteko, margoak...

—Ix0000! Orren beste gauza?

—Jakiña! Zer arraio! Ona izan naz eta eskatzeko eskubidea daukat!!!

—Baiña orrek gauza guztiak zeuretzako baiño ez dira?

—Baiña ba, norentzako izango dira ba? —diño Iñakitxuk—.

—Ez dakizu mutil batzuk jostailu barik geratuko dirala? —itaunduten dautso aitak.

—Ba, eta niri zer! Niri ez daust ardura! Ori euren gauzea da! A lla eurak!

—Alta eurak? Ez dozu uste apur bat egoistea zarala? Ez dozu uste penagarria dala zurelako beste mutil batzuk jostailu barik geratzea? —Dinotso aitak—.

—Bai, baiña ni ona izan naz eta eskatzeko eskubidea daukat!

—Baiña olan eta guzti, ez dozu lar eskatzen?

—Ez, ni ona izan naz eta nai dodan guztia eskatu neike —diño Iñakitxuk—. Une orretan amaren deia entzuten da:

—la, etor<sup>r</sup>i biok, afaria gertu dago eta! la, arin otzitu baiño lenago. Orrelan amaitzen da aita eta Iñakitxuren arteko eztabaidea. Afaria jan eta iruren artean oskiak gertatzen dabez Olentzerok bertan bezuzak itziteko. Aitak bere aldetik Kaiak apur bar izten dautso edan-ontzi baten Olentzerori.

Gero gure mutil ona oera doa, eta jostailuen ametsen artean loak artzen dau. Amets artean bera

ikusten da Olentzerok ekarritako jostailuekaz jolas-ten.

Urrengo egunean zazpiretako izartu egiten da, eta oean ona eta orra asten da, lotu ezinik, aita eta ama izartu arte. Amak ba-diñotso:

—Zer darabiltzu Iñaki! Egizu lo apur bat orain-diño goizetik da-eta!

—Ez naz logura eta gaiñera jostailuak ikusi gura dodaz!

—Itxaron eoizu apur bat goizetik da ta!

—Ikusi egian gura dodaz, ikusi egun gura dodaz! —diño negar artean mutillak—.

—la ba, joan zaitez ikusten —diñotso aitak—.

Eta bereala salto bat egin, mantak alde batera eginaz, or doa Iñaki ariñeketan sutera jostailuak ikusten.

—Baiña zer da au? Emen ez dago ezer be! Aita etorri! Emen ez dago ezer be!

—Begiratu dozu ondo zure oskietan? —itaunduten dautso amak oetik—.

—Ia... baiña zer egin dau Olentzerok ?Ikatza itzi dau! Erratu egin da, ezin leiteke izan, ni ona izan naz...

Orduntxe elduten da sutera aita eta Iñakiren oskien artean sobre bat aurkitzen dau.

—Iñaki, antza au zuretzat da, emen «Iñakirentzat» ipinten dau.

Iñakik sobre a artu eta zabaltzen asten da, arin-arinka esturik, bertan dagoen papera atara eta au irakurten dau:

«Nere lagun Iñakitxuri:

Zugaz bat nago mutil ona izan zarela, baiña gauza lar-egi eskatu dozuz, eta ESKATZEA LIBREA BA DA; EMOTEA BE BAI.

Zure lagun dan.

OLENTZER O'k

ENDIKA

## IZTEGIA

Gutuna/kartea
Itaundu/preguntau
Bezuzak/erregaluak
Jostailuak/jugeteak
Egazkiña/aeroplanoa
Margotu/pintau